

2020ko bigarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 0,3 egin dute behera, aurreko hiruhilekoaren aldean

Inportazioen prezioek ere behera egin dute, % 8,3

2020ko bigarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 0,3 egin dute behera, 2020ko lehen hiruhilekoaren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, berriz, % 0,1ekoa da gorakada.

Inportazioen prezioek % 8,3 egin dute behera, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 7,2, 2019ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Esportazioetan, "Produktu energetiko"en prezioek ezarri zuten bilakaeraren eredua, bai aurreko hiruhilekoaren aldean, bai urte arteko terminoetan. Hala, 2020ko lehen hiruhilekoaren aldean, esportazio energetikoen prezioek % 12,0 egin zuten gora; ez energetikoen prezioek % 1,0 egin zuten gora. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun energetikoen prezioek % 21,9 egin dute behera, eta ez-energetikoenek, % 2,4 gora.

Inportazioetan, produktu energetikoen prezioen indizeak % 34,0 egin du behera hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoenak, % 0,2. Urte arteko erkaketan, produktu energetikoetan prezioa % 35,4 jaitsi zen, eta ez-energetikoetan % 2,6 igo zen.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, erabilera taldearen eta xede ekonomikoaren arabera (%). II/2020

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,3	0,1	-8,3	-7,2
Produktu energetikoak	-12,0	-21,9	-34,0	-35,4
Produktu ez-energetikoak	1,0	2,4	-0,2	2,6
Kontsumo-ondasunak	2,3	8,7	-2,6	4,7
Kapital-ondasunak	-0,4	-3,4	4,9	5,0
Bitarteko-ondasunak	-1,0	-1,1	-9,9	-9,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapena kontuan hartuta, nabarmentzekoa da Kontsumo-ondasunen esportazioen prezioen igoera (% 2,3) eta Kapital-ondasunen beherakadak (−% 0,4) eta Tarteko ondasunenak (−% 1,0); hori guztia, aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte arteko terminoetan, egiaztatu egiten da Kontsumo-ondasunen prezioak are gehiago hazi direla (% 8,7), eta Tarteko ondasunek eta, batik bat, Kapital-ondasunek behera egin dutela (−% 1,1 eta −% 3,4, hurrenez hurren).

Inportazioak direla eta, Kapital-ondasunen prezioek hiru hilekoen artean eta urte artean gora egin dutela ikusten da (% 4,9 eta % 5,0, hurrenez hurren), eta Tarteko ondasunen kasuan, berriz, guztiz kontrakoa gertatu dela (% 9,9 eta % 9,1 egin dute behera, hurrenez hurren). Kontsumo-ondasunen kasuan, aldakuntzak bestelakoak dira: negatiboak hiru hilekoen arteko erkaketan (–% 2,6) eta positiboak aurreko urtearen aldean (% 4,7).

Esportazioen **arlotan geografikoak** aintzat hartuta, prezioek, 2020ko lehen hiru hilekoaren aldean, behera egin zuten Eurogunean (–% 3,0), EB-28an (–% 9,0) eta Munduko gainerakoan (–% 7,5), baina gora egin zuten ELGAN (% 1,4). Aurreko urteko hiru hileko beraren aldean, azpimarratzekoa da prezioek nabarmen egin zutela behera Munduko gainerakoaren arlo ekonomikoan (% 8,9).


Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomikoak-eremua aintzat hartuta (%). II/2020

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,3	0,1	-8,3	-7,2
Euro eremua	-3,0	-2,0	-2,5	1,9
EB-28	-0,9	0,3	-2,1	1,6
ELGE	1,4	2,2	-7,3	-0,9
Munduko gainerakoa	-7,5	-8,9	-11,6	-20,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioetan, nabarmentzekoa da, halaber, Munduko gainerakoaren portaera; izan ere, gutxiagotze handiak izan ditu prezioetan, bai aurreko hiru hilekoaren aldean (–% 11,6), bai urte artean (–% 27,0), gordinaren prezioetan azken hiletan izan den beherakada handiaren ondorioz. Arlo horrez gainera, eta urteko lehen hiru hilekoaren aldean, prezioen beherakada egon da, halaber, gainerako arlo ekonomikoetan, eta ELGA nabarmendu beharra dago, beherakada handia izan baita (–% 7,3).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Oharra: UBIk, 2005eko oinarria, Erresuma Batua hartzen dute Europar Batasunean, eta UBIak oinarri berri batean argitaratu arte erabiliko dira.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf.: 945 01 75 62

Euskadiko AEko kanpo-merkataritzako balio unitarioaren indizeei (BUI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskadiko AEko kanpo-merkataritzako balio unitarioaren indizeei (BUI) buruzko datu-bankua